



II. ATALA
BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Iurretako Udala

2019ko garapenerako lankidetzarako proiektuetarako diru-laguntza emateko deialdia eta oinarri arautzaileak.

Alkateak, aurtengo uztailaren 24ko 773/2019 Dekretuaren bidez, honako hau erabaki du:

Lehenengoa: 2019ko Garapenerako Lankidetzarako proiektuetarako diru-laguntza ematea arautzea da oinarri hauen xedea.

Bigarrena: 2019ko Garapenerako Lankidetzarako proiektuetarako diru-laguntza emateko oinarri arautzaileak onartzea (Eranskina).

Hirugarrena: Erabaki hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta udaletxeko iragarki-oholean argitaratzea.

Laugarrena: Ebazpen hau Kontu-hartzailletza Sailari eta Herritarren Arreta Zerbitzuari jakinaraziko zaie.

Denek jakin dezaten adierazten da.

Iurretan, 2019ko uztailaren 24an. — Alkatea, Iñaki Totorikaguena Sarrionandia

**ERANSKINA****1. Helburua**

Norgehiagoka erregimenean, 2020. urtean gauzatzeko, 2019ko Garapenerako Lankidetzarako proiektuei emateko diru-laguntza arautzea da oinarri hauen xedea.

Lankidetzeta eta gizarte sentsibilizazio proiektu zehatzei emango zaizkie laguntzak.

Garapenerako Lankidetzak, herrien arteko elkartasunaren adierazgarri, herrialderik behartsuenei lagundu nahi die, garapenaren bidean etengabe aurrera egin dezaten.

2. Erakunde Onuradunak

2.1. 2019 Garapenerako Lankidetzaren alde lan egiten duten pertsona juridikoak edukiko dute onuradun izateko aukera.

- a) Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakundeak (GGKE).
- b) Garapenerako Lankidetzaren alde lan egiten duten nortasun juridikodun irabaz asmorik gabeko Elkarte eta Erakundeak.

2.2. Diru-laguntzak eskatzeko, elkarteak eta erakundeak, ondoko oinarri espezifikoetan, lurretako Udalerriko Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorrean eta gainontzeko arautegian ezarritako baldintzak bete beharko dituzte.

- a) Legalki eratuak eta dagokion erregistro publikoan inskribaturik egotea, gutxienez urte beteko antzintasunarekin.
- b) Bere helburuetan Garapenerako Lankidetzako ekintzak aurrera eramatea egotea, lagunkidetasuna landu eta lankidetzeta izatea helburu nagusia.
- c) Irabazi-asmorik ez edukitzea.
- d) Elkarlanerako ekintzetan esperientzia ziurtatu. Helburuak betetzeko azpiegitura egokia izatea.
- e) Euskal Autonomi Erkidegoan (EAE) egoitza izatea edota Garapenerako bidean dauden Elkarte edo Erakundeak izanez gero, lurretako batekin hizketakide-harremanak izatea.
- f) Egokia den publizitatea eman beharko zaio onuradunen aldetik, hau da, jasotako finantziario publikoarena.

2.3. Hauek ez dira erakunde onuraduntzat joko:

- a) Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeko 24. artikuluan xedatutakoaren arabera beren onarpen edo funtzionamendu prozesuetan sexuagatik diskriminatzen duten elkarte eta erakundeak.
- b) Sexu diskriminazioagatik zehapen administratibo edo penalen bat izan duten pertsona fisiko eta/edo juridikoak, kasuan kasuko zehapenean ezarritako epean, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeko 3 (1) artikuluan xedatutakoarekin bat eta Emakume eta Gizonen arteko benetako Berdintasunari buruzko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa.

2.4. Herri Administrazioiko Erakunde edo Zerbitzuak eta banketxe eta aurrezki kuttak ezingo dute diru-laguntzarik jaso.

3. Diruz lagunduko den gehienezko zenbatekoa guztira

Deialdi honetara bideratutako kreditua bost mila eurokoa da (5.000,00 euros), 231.481.12 aurrekontu atalaren pentzuan.

Diru-laguntza hauek eta beste erakunde publiko edo pribatuetatik jasotako bestelako laguntzak, diru-sarrerak edo baliabideak bateragarriak izango dira, lurretako Udalerriko Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorrean zehaztutakoaren arabera, beti ere beraien zenbateko osoa, proiektuaren zenbateko gutzia gainditzen ez duen bitartean.



4. Diruz lagun daitezkeen proiektuak

4.1. Honako ezaugarri hauek betetzen dituzten proiektuei emango zaizkie diru-laguntza:

- a) Garapenerako bidean dauden herrietan burutzea.
- b) Giza eta ekonomiko garapen orekatu bat, edota osasun, hezkuntza, ongizate, kultura, giza eskubideen promozioa, demokraziaren garapena, norbanako eta taldekako askatasunak, eta abar arloak izan ditzatela helburu, betiere jokaera hauek iraunkortasun edo egonkortasun bat badute.
- c) Laguntzak herritar guztientzat izatea, arraza, erlijio, sexua, e.a. oztopo izan gabe.
- d) Inposaketa kulturala bazter batera utzi, eta herriaren ingurugiroa eta idiosinkrazia errespetatu ditzatela.
- e) Herritarren parte hartze demokratikoa bultzatu ditzatela.
- f) Iritzi publikoa eta lurretako herritarrak hezi, informatu eta sentikortzeko Garapenaren, Arrazakeriaren, Xenofobiaren eta Giza Eskubideen Lankidetzarekin erlazionatutako gai ezberdinen fundamentuei eta oinarriei buruzko programak laguntza jaso ahal izango dute.

5. Diruz lagun daitezkeen gastuak

5.1. Diru laguntza jaso dezaketen gastuak, ezaugarri hauek bete behar dituzte:

- a) Inolako zalantzarik gabe diruz lagundutako jardueraren izaerarekin bat datozenak, baldin eta benetan beharrezkoak badira eta deialdian ezarritako epean egiten badira.

Diru-laguntza jaso dezaketen gastuak ezin izango dira izan inolaz ere merkatuko balioa baino altuagoak. Diruz lagundu ahal izango diren gastuak Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 31. artikuluan eta Udalbatzak, 2019ko maiatzaren 30ean onartutako lurretako Udalerriko Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorrean zehaztutako ezarritakoak arautuko ditu.

- b) Justifikazio-aldia amaitu aurretik ordaindutako gastua joko da egindako gastutzat.
- c) Diruz lagungarriak izango dira jarduerarekin lotutako zeharkako kostuak, proiektua identifikatu, formulatu, jarraipena eta ebaluazioa egiteko zuenean lotutako administrazio eta kudeaketa gastuak. Zeharkako kosteen portzentajea eskatutako diru-laguntzaren zenbatekoaren %5a izango da gehienez.

Hala ere, diru-laguntza jaso duen jarduerari egotzi dakizkiokeen zeharkako kostuak zehaztu aurretik beharrezko azterketa ekonomikoak egin beharko dira jarduera hori egotzi daitekeen zeharkako kostuaren zenbateko osoaren zatiketa ezartzeko, orokorrean onartuta dauden kontabilitate printzipioekin eta arauekin bat eginez.

6. Eskakerak aurkeztea

6.1. Aurkezteko epea.

Eskabideak aurkezteko epea iragarki hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hasiko da, eta 2019ko irailaren 30ean bukatuko da (egun hori barne).

6.2. Eskaera eta aurkeztu beharreko agiriak.

Lurretako Udalaren Erregistro Orokorrean aurkeztuko dira diru-laguntzaren eskabideak (G-03 eredu) lurretako Udaleko alkate-udalburu jaunari zuzenduz (HAZ-Herritarren Arretarako Zerbitzua: Bidebarrieta, 5-48215 lurreta); edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4. artikuluan ezarritako bitartekoren baten bidez ere aurkeztu ahalko da. Aurkeztu beharreko dokumentazioa:

- Legezko ordezkariaren Nortasun Agiri Nazionalaren eta Identifikazio Fiskaleko Kodearen kopia konpultsatua.
- Behar bezala legezkatutako elkarte edo erakundeko estatutuen fotokopia konpultsatua (lehen aldiz aurkezten badute edo aldaketarik egin badute).



- Zuzendaritza Batzordearen osaketa akta.
- Hirugarrenen Alta inprimakia (03 Eredua) edo aurkeztu izanaren aipamena.
- Proiektuari buruzko galdetegia (G-04 Eredua).
- Garapenerako Lankidetzeta proiektua (Jardueraren garapenari buruzko azalpena paperean-12 orri gehienez- eta euskarri digitalean).
- Azken ekitaldiko jardueren txostena eta txosten ekonomikoa (aurreikusitako gastuak eta diru-sarrerak).

Diru-laguntzaren eskabideak aurkezteko ereduak, 48215-lurretako HAZ-Herritarren Harreta Zerbitzuan (Bidebarrieta, 5), Ibarretxe Kultur Etxean (Bidebarrieta, 4) eta web-orriko administrazio-izapideen eskuliburuan (http://www.iurreta.eus/es-ES/Manual%20de%20trmites/20180502_MANUAL%20EUSKERA.pdf).

Eskaera aurkezteak ondoko oinarri hauek eta Udalbatzak, 2019ko maiatzaren 30ean onartutako lurretako Udalerriko Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorrean jasotzen diren arau guztiak onartzea dakar.

7. Salbuespenak

Onuradunek ezin izango dituzte diru-laguntzak jaso, baldin eta instantziak aurkeztu behar direnean Udala eta Foru Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko zerga-betebeharrak eguneratuta ez baditu; era berean, diru-laguntzak Arautzeko Ordenantzari jaso diren arrazoiengatik ere ezingo dituzte laguntza horiek jaso. Ziurtagiriak aurkezte hutsak ez du esan nahi ziurtagiri horiek egokiak direnik.

8. Onuradunen betebeharrak

8.1. Onuradunak Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean ezarritako printzipio orokorrak bete beharko ditu, beren jardueretan.

8.2. Ezingo dute erabili hizkuntza sexistarik beren dokumentazioan, publizitatean, irudietan edo materialetan; irudi diskriminatzaileak eta estereotipo sexistak saihestuko dituzte; eta sustatuko duten irudian berdintasun balioak, presentzia orekatua, dibertsitatea, erantzunkidetasuna zein rolen eta genero-identitateen aniztasuna islatuko dira.

8.3. Proiektuaren edozein funtsezko aldaketa egiteko, bai garapenean bai exekuzioan, zein hartzaileen edota bertako protagonistaren aldetik, proiektua egiteko epea amaitu aurretik lurretako Udalari eskatu beharko zaio idatziz, beronek espresuki baimendu dezan.

9. Eskabideak baloratzeko irizpideak

Diru-laguntzak emateko prozedura norgehiagoka izango da. Prozedura horretan, diru-laguntzak emateko aurkeztutako eskaerak elkarrekin konparatzen dira, haien arteko lehenetasuna ezartzeko.

9.1. Lurretako Udalak, eskatutako baldintzak bete eta baztertzeko aurreikusita ez daudenen arteko eskariak aukeratuko ditu, zein egitasmo onetsi, eta diru-laguntzak emateko ondoko irizpide eta balorazio mugak hartuko dituen kontuan hartuz (gehienez 100 punturaino). Gutxienez 50 puntu ateratzen ez dituzten egitasmoak ez dira diruz lagungarriak izango.

- a) Proiektuaren interesa eta egokitasuna: gehienez, 40 puntu.
- b) Eskatzailearen kaudimen ekonomikoa: gehienez, 15 puntu.
- c) Proiektuaren bideragarritasuna: gehienez, 15 puntu.
- d) Genero ikuspegiaren txertapena: gehienez, 10 puntu.
- e) Proiektuaren gizarte helburuak: gehienez, 10 puntu.
- f) Lurretako udalerriko inplikazioa: gehienez, 10 puntu.

9.2. Proiektuak aztertu eta teknikoen balorazioa jaso ondoren, eskumenak dituen organoak egokiak diren laguntzak emango ditu (inoiz ez dira proiektuaren finantza-bide-



ko %75a baino gehiago izango), beti ere oinarri hauetan honetarako jarrita dagoenaren gehiengoa pasa gabe.

9.3. Diru-laguntza onartu eta hurrengo urtean burutzen ez diren proiektuak ez dute diru-laguntzarik jasoko. Proiektuak gehienez 12 hilabeteko iraupena izango dute.

10. Prozeduraren instrukzioa

10.1. Prozeduraren organo instrukzio-egilea udal langile bat izango da.

10.2. Diru-laguntzak lortzeko eskaerak jasotakoan, haien azterketa eta egiaztapena Balioespen Batzordearen zeregina izango da. Batzorde hori honako hauek osatuko dute:

- Alkate-udalburua edo eskuordetutako Gizarte Ongizate eta Berdintasuneko Batzordeko pertsona bat.
- Gizarte Langilea.
- Gizarte Ongizate eta Berdintasuneko Batzordeko idazkaria.

10.3. Eskabideak aurkezteko epea amaitu ondoren Balorazio Batzordeak interesdunari eskabidean aurkitutako akatsak zuzentzeko eskatu ahalko dio; horretarako 5 egun natural izango ditu, jakinarazpena jaso denetik aurrera zenbatzen hasita.

10.4. Akats horiek epearen barruan zuzendu ezean, eskabidea uko egindakotzat joko da. Hala, prozedura artxibatu egingo da, urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeak 68. artikuluan xedatzen duenaren arabera emango den ebazpenaren bidez.

10.5. Aurkeztutako eskabideak aztertu ostean eta, hala balegokio, akatsak zuzentzeko epea amaitu ondoren, Balioespen Batzordeak txostena egingo du, bertan, gutxienez, honako datuak jasota: bazter utzitako eskaerak, horiek baztertzeko zergatia, aintzat hartutako eskaerak, horiei eman beharreko diru-laguntzaren zenbatekoa eta oinarri hauetan aurreikusitako baldintzak bete izana ere.

10.6. Organo bideratzaileak, txostena jaso ostean, beste txosten bat egingo du, eta, bertan adieraziko denez, bere esku duen informazioaren arabera onuradunek diru-laguntzak jasotzeko beharrezko eskakizun guztiak betetzen dituzte.

10.7. Organo bideratzaileak ebazpen-proposamena egingo du Balioespen Batzordeak emandako txostena oinarri hartuta, diru-laguntza ematen duen organoaren aurrean, hau da Alkatea.

10.8. Prozedura ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa izango da, eskaerak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo egunetik hasita. Epea igarota berriazko ebazpenik eman eta jakinarazi ez bada, eskaera ezetsi egin zaiela ulertuko dute interesatuek, administrazioak erantzunik eman ez duelako.

10.9. Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40 artikuluan aurreikusitakoaren arabera emango da jakitera ebazpena.

10.10. Berriazko ebazpen-egintzen kontra, berraztertze-errekurtsoa jarri ahal izango da egintza eman zuen organoaren aurrean; bestela, zuzenean, administrazioarekiko auzietarako errekurtsoa ipini ahal izango da.

11. Diru-laguntzen zenbatekoa eta ordainketa

11.1. Eskatutako gastuen %75 finantzatu ahal izango da, oinarri hauetan xedatutako kreditu osoa muga dela.

11.2. Onuradunari emango zaion zenbatekoa Balioespen Batzordeak egindako txostenean zehaztutakoa izango da, zortzigarren oinarrian finkatutako irizpideak oinarri hartuta.

11.3. Diru-laguntzaren zenbatekoak —ez bakarka ez beste diru-laguntzei edo laguntzei gehituta— ezingo du inoiz ere gainditu onuradunak garatu beharreko jardueraren kostua.



11.4. Ezin izango da diru-laguntza ordaindu, harik eta onuradunak zerga-betekizunak edo Gizarte Segurantzarekikoak egunean izan arte edota dirua itzultzeko prozeduran zorduna bada.

12. Diru-laguntzaren Justifikazioa

12.1. Emandako diru-laguntza zuzitzeko, Udalbatzak, 2019ko maiatzaren 30ean onartutako lurretako Udalerriko Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorreko 22 eta 23. artikuluekin bat etorritik, oinarrietan aurreikusitako salbuespenetan izan ezik, 2021eko urtarrilaren 31 baino lehen, hurrengo dokumentazio eta udal honek onetsitako ereduak aurkeztuz beharko dira:

- Justifikazioa. (07 Eredua).
- Justifikazio kontua:
 - Jarduketa memoria:
 - Egindako jarduketak/jarduerak (jarduerak gauzatzeko lekua eta egunak, garapenari buruzko azalpena, ezarritako helburuak eta jarduerako gastu guztien zenbatekoa).
 - Egin ez diren jarduketak eta arrazoiak.
 - Jarduerak gauzaten parte hartu duten Erakundeak (balantze ekonomiko orokorra eta egindako jardueren balantze xehatua).
 - Eranskinak: Eskuliburuak, kartelak, diptikoak/triptikoak,... argazkiak, bideoak, prentsa atalak, ebaluazio galdetegiak edo memorian azaldutakoa egia dela egiaztatu dezaketen gainerako agiriak eta Udalarekin sortutako lankidetzaren publizitatea zuzentasunez gauzatu dela justifikatzen duen dokumentazio grafikoa.
 - Ikus-entzunezko materiala formatu informatikoan aurkeztu behar dute proiektuaren garapena nola doan egiaztatzeko.
 - Memoria ekonomikoa:
 - Jardueraren gastuen eta inbertsioen zerrenda sailkatua, 2020 urteko fakturak eta ordainketa egin dela adierazten duten agiriak atxikituz . Aurkeztu ezean, eskatu ez direla ulertuko da (08 Eredua).
 - Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste diru-sarrea edo diru-laguntzen zerrenda xehea, zenbatekoa eta horren jatorria adieraziz. Aurkeztu ezean, eskatu ez direla ulertuko da.

12.2. Onuradunak, proiektua bukatzean, lurretan erakusketa bat antolatu behar du.

12.3. Diru-laguntza ematen duen organoa arduratuko da hura ondo justifikatuta ote dagoen begiratzeaz, baita diru-laguntzaren helburu zen jarduera bete ote den zaintzeaz ere.

12.4. Laguntzak jaso dituzten onuradunak, beste Administrazio edo Herri edo Nazioarteko Erakunde Publikoetatik proiektu berdinerako jasotako diru-laguntzaren berri ematera behartuak daude. Laguntza guztiak ezin dira proiektuaren kostu osoa baino gehiago izan.

Baldintza hau bete ezean, emandako laguntza galduko da.

12.5. Administrazioak eskatutako egiaztapenak, herri Artekartzaren ardura diren kontrol finantzarioak eta Kontuan Epaitegiko Legedira lotuta dauden beharrak betetzera behartuta daude laguntza jaso dituzten onuradunak.

12.6. Aurreikusitako gastuak burutu ez badira edota lurreta udalaren baimenik gabe, lagundutako proiektuak erabat aldatuak izan badira, laguntzak jaso dituzten onuradunak jasotako diru-laguntza bueltatzera behartuta daude.

12.7. Diruz lagundutako jarduera iragarri eta egiteko erabilitako euskarri guztiak, Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan idatzi beharko dira.

**13. Arau-haustekak, zehapenak eta itzulketak**

Arau-hausteei eta zehapenei dagokion guztia Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean, uztailaren 21ko 887/2006 Errege-dekretua eta Udalbatzak, 2019ko maiatzaren 30ean onartutako lurretako Udalerriko Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorrean xedatutakoaren arabera egingo da.

Itzulketarako prozedura eta arrazoiak Udalbatzak, 2019ko maiatzaren 30ean onartutako lurretako Udalerriko Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorrean eta aurreko paragrafoan aipatutako legedian xedatutakoaren arabera egingo da izango dira.

14. Araubide juridikoa

Oinarri honetan jaso ez diren kontuetarako honako hauek aplikatuko dira: Diru-laguntzak ematea arautzen duen ordenantza, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren Araudia onetsi zuen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua.